

## A26

### *Tratado de lo que berdaderamente acontecerá antes y el día del temeroso juicio*

Azken Judizioa iragartzen duen Ebanjelioetako Mateo 25, 31-46 atalaren glosa da, funtsean, poema hau. Hona hemen Ebanjelioko testua:

Gizonaren Semea, aingeru guztiak lagun dituela, aintzaz beterik etortzean, bere errege-aulkian eseriko da. Herriak oro haren aurrean bilduko dituzte. Hark batzuk besteengandik bereizi egingo ditu, artzainak ardiak akerretatik bereizten dituen bezala, eta ardiak bere eskuinean eta akerrak ezkerrean ezarriko ditu. Orduan, erregeak eskuinekoei esango die: “Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; hartazue munduaren sortzetik zuentzat prestatua dagoen erreinua. Gose bainintzen eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaixo, eta bisitatu; kartzelan, eta ikustera etorri”. Orduan, zintzoek esango diote: “Jauna, baina noiz aurkitu zintugun goseak eta jaten eman genizun, edo egarriak eta edaten eman? Noiz aurkitu zintugun arrotz eta etxean hartu, edo larrugorri aurkitu eta jantzi? Noiz aurkitu zintugun gaixo edo kartzelan eta ikustera joan?” Eta erregeak erantzungo die: “Benetan diotsuet: Nire seniderik txikien hauetako edozeini egin zeniotena, neuri egin zenidaten”. Gero, ezkerrekoei esango die: “Alde niregandik urruti, madarikatuok, deabruarentzat eta haren lagunentzat prestatua dagoen betiko sutara. Gose bainintzen eta ez zenidaten jaten eman; egarri, eta edaten eman ez; arrotz, eta ez ninduzuen etxean hartu; biluzik, eta ez ninduzuen jantzi; gaixo eta kartzelan, eta ez zineten ikustera etorri”. Orduan, haiek ere esango diote: “Jauna, baina noiz aurkitu zintugun gose edo egarri, arrotz edo larrugorri, gaixo edo kartzelan, eta guk lagundu ez?” Hark erantzungo die: “Benetan diotsuet: Txikien hauetako edozeini egin ez zeniotena, neuri ez zenidaten egin”. Eta haiek betiko zigorretara joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizitzara.

Pasarte hori glosatzen duten poema pedagogikoen tradizioa luzea da, jakina, Mendebaldeko literatura guztietan; gogoan izan, adibidez, Gonzalo de Berceoren “Los signos del juicio final” edo Francisco de Aldanaren “Octavas sobre el Juicio Final” (ikusi González Martínez 1998), eta are euskaraz ere, Etxepareren “Judizio jenerala”.

Lazarragaren bertsioan, errimak markatzen du poemaren egitura: Ama Birjinaren bitartekotzari dagokio lehenengo parte (1-48 lerroak, *-du* errimarekin, *Inbocación a la Madre de Dios* izenburupean), eta ondoren dator Azken Judizioaren kontakizuna (49-166 lerroak, *-ua-* errima bokalikoarekin). Kontakizun horretan, bekatarien zigorraz dihardu lehenbizi (49-142) eta ongileen sariaz gero (143-166).

Eskuizkribuan poema honetan bakarrik aurkitu dugu eredu metriko hau: bakoitia 5 silabako librea, eta bikoitia 9 silabakoa errima bokalikoarekin; honen antzekoena A28 eta B29 poemetakoa da (5+8).

<1198r> *Aquí comienza un tratado de lo que berdaderamente acontecerá antes y el día del temeroso<sup>1</sup> juicio, y el galardón y premio que los buenos y los malos an de rescevir según sus hobras.*

*Compuesto por Laçarraga.*

*Sometido al gremio<sup>2</sup> y corrección de la Sancta Madre Iglesia; arrimado a la fe y al mejor juicio.*

***Inbocación a la Madre de Dios.***

<sup>1</sup> *temeroso*: ‘beldurgarri’.

<sup>2</sup> *Sometido al gremio*: ‘batasunari lotua’.

	Oi <sup>3</sup> gizon batek	
	Errege baleu enojadu, <sup>4</sup>	
	enojadu ta	
	asko maneraz <sup>5</sup> afrontadu, <sup>6</sup>	
	itaunketan <sup>7</sup> dot	5
	oi leikean azertadu	
	atrebimentuz	
	oi balekio arrimadu. <sup>8</sup>	
	Nik ez neike	
	ha legiala konsejadu, <sup>9</sup>	10
	zerren leike	
	oita bertati <sup>10</sup> kondenadu.	
	Badanik bere, <sup>11</sup>	
	amea <sup>12</sup> baleu hain onradu,	
	onrada <sup>13</sup> eta	15
	bere semeaz <sup>14</sup> konzertadu, <sup>15</sup>	
	oita zeinari	
	semeak leion otorgadu	
	eska lekion	
<1198v>	mesedea <sup>16</sup> ta konfirmadu, <sup>17</sup>	20
	banerexkeo <sup>18</sup>	
	oi lekiola umiliadu	
	gatx egilea	
	andra honi ta suplikadu	
	bere semeari	25
	oi legiola alkanzadu <sup>19</sup>	
	parkazioa, <sup>20</sup>	

<sup>3</sup> *Oi*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi* eta *oita* betegarriak (bakanka *oi eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>4</sup> *baleu enojadu*: Aditz laguntzailea aditz nagusiaren aurretik agertzen da askotan poemaren lehenengo partean (1-48), errima (-*adu*) errazten duelako.

<sup>5</sup> *asko maneraz*: ‘manera askoz’.

<sup>6</sup> *Errege baleu enojadu*, / *enojadu ta* / *asko maneraz afrontadu*: Ahozko literaturan sarri agertzen da anadiplosia: testu-zati baten azken zatia hurrengoaren hasieran errepikatzea eta kateatzea; *bihurkia* deitu zion Manuel Lekuonak ahozko euskal literatura aztertzean. Testuan behin baino gehiagotan agertzen da baliabide hori.

*afrontadu*: ‘iraindu, haserretu’.

<sup>7</sup> *itaunketan*: ‘itauntzen, galdetzen’.

<sup>8</sup> *arrimadu*: ‘norbaitengana jo babes edo laguntza bila’.

<sup>9</sup> *Nik ez neike* / *ha legiala konsejadu*: ‘nik ez nuke aholkatuko hori (arrimatzea) egin lezala’.

<sup>10</sup> *bertati*: ‘berehala’.

<sup>11</sup> *Badanik bere*: ‘hala ere’.

<sup>12</sup> *amea*: ‘ama’.

<sup>13</sup> *onrada*: Bihurki edo anadiplosiaz ikusi 2-4 lerroei dagokien oharra. Hemen aldaketa bat egin du (*onradu* > *onrada*), baina funtsean baliabide bera da.

<sup>14</sup> *semeaz*: ‘semeagaz, semearekin’.

<sup>15</sup> *konzertadu*: ‘adostu, hitzartu’.

<sup>16</sup> *eska lekion* / *mesedea*: ‘(amak semeari) eska liezazion mesedea, eskatutako mesedea’.

<sup>17</sup> *otorgadu* / *eska lekion* / *mesedea ta konfirmadu*: *otorgadu... ta konfirmadu* aditzen erabilera, hemen eta beheerago 34-36. lerroetan, lotuta egon liteke nobleek eta erregeek legeak, foruak, erregaliak, etab. berresteko erabiltzen zituzten formulekin.

<sup>18</sup> *banerexkeo*: ‘ondo iritziko nioke’.

<sup>19</sup> *alkanzadu*: ‘erdietsi’.

	zerren lebela enojadu. <sup>21</sup>	
	Oita bertati	
	ameak leike azeptadu	30
	erreguxeau, <sup>22</sup>	
	zeinak <sup>23</sup> leian prokuradu	
	oi legiola	
	seme jaunorrek otorgadu	
	kulpaduaren	35
	barkazioa ta konfirmadu.	
	Bada, jentea,	
	zerren daigun atajadu <sup>24</sup>	
	esan dogunau,	
	arren, daigun akklaradu:	40
	Jakin egizu <sup>25</sup>	
	oita dogula enojadu	
	Jaun Zerukoa,	
	zerren ditugu kebrantadu	
	oi mandamentu	45
	santuak eta traspasadu,	
	zegaiti <sup>26</sup> dogun	
	pena handia merezidu.	
<1199r>	—Infernuetan	
	dao <sup>27</sup> zuenzat <sup>28</sup> griluak, <sup>29</sup>	50
	zerren deustazun	
	oi hausi mandamentuak.	
	Oi laster zoaz, <sup>30</sup>	
	gaxto deskomulgaduak!	
	Ezindan <sup>31</sup> jaaten,	55
	oita nengutsun <sup>32</sup> orduan	
	nola nengoan	
	goseak hilik munduan.	
	Ez zeegidan <sup>33</sup>	

<sup>20</sup> *ta suplikadu / bere semeari / oi legiola alkanzadu / parkazioa*: Joskera bihurria bada ere, honela ulertu dugu: Gaitz-egilea umiliatzen zaio andre honi, eta (gaitz-egileak) suplikatzen dio (andre honi) (andre honek) alkanzadu edo erdietsi diezaiola bere semearengandik barkazioa (gaitz-egilearentzat).

<sup>21</sup> *zerren lebela enojadu*: ‘zeren haserretu baitzuen’.

<sup>22</sup> *erreguxeau*: ‘erregutxo hau’.

<sup>23</sup> *zeinak*: *ameak*, alegia.

<sup>24</sup> *zerren daigun atajadu*: ‘(solasa) atajadu, amaitu, laburtu dezagun; (solasa) atajatzeko, amaitzeko, laburtzeko’; helburuzko perpausa da.

<sup>25</sup> *Jakin egizu*: ‘jakin ezazue’; *jentea* da aditz honi dagokion bokatihoa. Poeman gehiagotan agertzen da *zu-ri* dagokion aditz-morfema bere jatorrizko plural balioarekin.

<sup>26</sup> *zegaiti*: ‘zeinarengatik, aurreko guztiagatik’; ez da kausala, erlatibozko kontsektiboa baino; hortaz, ez da gaztelaniazko *porque*, baizik eta *por lo cual*.

<sup>27</sup> *dao*: ‘dagoz, daude’.

<sup>28</sup> *zuenzat*: Errima-aldaketarekin batera, pertsona ere aldatu da: *gu* > *zu(ek)*. Horrela markatzen da poemako bi parteen arteko jauzia.

<sup>29</sup> *griluak*: ‘girgiluak’.

<sup>30</sup> *zoaz*: ‘zoaz(te), joan zaitez(te)’.

<sup>31</sup> *Ezindan*: ‘ez zindan, ez zenida(te)n eman’.

<sup>32</sup> *nengutsun*: ‘ikusi ninduzu(e)n’.

<sup>33</sup> *Ez zeegidan*: ‘ez zenida(te)n egin’.

	surik, hotz nintzan orduan.	60
	Oi ez ninduzun ai <sup>34</sup> rekojidu <sup>35</sup> neguan. Gaxo nintzala, ez nendukazun <sup>36</sup> kontuan, ez gehiago <sup>37</sup>	65
	katigu <sup>38</sup> nenzan <sup>39</sup> lekuan.— Esango dabe kondenaduak orduan: —Oi nox zenbilzen horrinbat <sup>40</sup> gatxez munduan?	70
	Heldu ez zara guek <sup>41</sup> geonzen <sup>42</sup> lekuan.— —Exilik zaoz! <sup>43</sup> eranzungo dau orduan Jaun Zerukoak,	75
<1199v>	oi hau desoen puntuan. <sup>44</sup> —Akorda zatez oi eta zarriz <sup>45</sup> kontuan zinbat <sup>46</sup> joazen ebili <sup>47</sup> pobre munduan,	80
	goseak hilik, hotzak <sup>48</sup> bere bai kanpuan; <sup>49</sup> oi zuetara <sup>50</sup> joan joazen orduan limosna eske	85
	Jaungoikoaren kontuan; zuek hoegaz <sup>51</sup> oi kontu gitxi orduan. Orain zaoza <sup>52</sup> gumuta dezun <sup>53</sup> lekuan,	90
	zuelakoak	

<sup>34</sup> *ai*: ‘ai’ heiagora da.<sup>35</sup> *rekojidu*: ‘babestu’.<sup>36</sup> *ez nendukazun*: ‘ez ninduzu(e)n eduki’.<sup>37</sup> *ez gehiago*: ‘ez eta ere’.<sup>38</sup> *katigu*: ‘gatibu’.<sup>39</sup> *nenzan*: ‘nintzan’.<sup>40</sup> *horrinbat*: ‘horreinbat, horrenbeste’.<sup>41</sup> *guek*: ‘gu’.<sup>42</sup> *geonzen*: ‘gengozan, geunden’.<sup>43</sup> *zaoz*: ‘egon zaitetz(te)’.<sup>44</sup> *hau desoen puntuan*: ‘(kondenatuek Jaun Zerukoari) hau esaten dioten unean’.<sup>45</sup> *zarriz*: ‘jar zaitetz(te)’.<sup>46</sup> *zinbat*: ‘zeinbat, zenbat’.<sup>47</sup> *joazen / ebili*: ‘ibili ohi ziren’.<sup>48</sup> *hotzak*: ‘hotzak hilik’, hain zuzen.<sup>49</sup> *kanpuan*: ‘kanpoan’.<sup>50</sup> *zuetara*: ‘zuengana’.<sup>51</sup> *hoegaz*: ‘hauekaz, hauekin’.<sup>52</sup> *zaoza*: ‘egon zaitetz(te)’.<sup>53</sup> *gumuta dezun*: ‘ezagun duzu(e)n, dakizu(e)n’.

egon doazen moduan. Utra <sup>54</sup> gaxtoto <sup>55</sup> bizi zinean munduan, ataidea <sup>56</sup>	95
ez zeukala <sup>57</sup> kontuan, ene gauzarik ez zeukala buruan, beti zeonzen <sup>58</sup> Satanasekin jokuan,	100
pensamentuok ifini бага zeruan, traspasadurik <sup>59</sup> oi ene mandamentuak; oi debozio	105
gutxi zeukan tenpluan, sazerdoteak meza esate orduan, <sup>60</sup> ez gehiago <sup>61</sup> predikaeta orduan. <sup>62</sup>	110
Oi zuen gatxok utra dakust nik klaruan: zoaz da <sup>63</sup> zarriz <sup>64</sup> infernuaren zoruan, finik izango	115
ez daben asientuan.— <sup>65</sup> Ernegaduko <sup>66</sup> dabe gaxtoak orduan enjendradu ta jaio zirean puntuaz; egingo dabe oita honela llantuak: —Ernegatzen dot oi konfessore juduaz, zerren ninduan	120
oi asolbidu orduan, oi egin бага penitenzia munduan.—	125

<sup>54</sup> *Utra*: ‘oso’.<sup>55</sup> *gaxtoto*: ‘txarto, gaizki’.<sup>56</sup> *ataidea*: ‘hurkoa’ esan nahi duela dirudi (agian \**ate-aide*, hots, ‘teilapekoa, auzokoa’), baina hapaxa da, ez baitugu aurkitu beste lekukotasunik.<sup>57</sup> *zeukala*: ‘zeneuka(te)la’.<sup>58</sup> *zeonzen*: ‘zeunde(te)n’.<sup>59</sup> *traspasadurik*: ‘hautsirik’.<sup>60</sup> *esate orduan*: ‘esateko orduan, esaten zuen orduan’.<sup>61</sup> *ez gehiago*: ‘eta are’, edo besterik gabe ‘ez gehiago’; kasu honetan ez da ‘ez eta ere’, lehenengo elementua ez delako ezezkoa, *gutxi* baino.<sup>62</sup> *predikaeta orduan*: ‘predikaetako orduan, predikatzeke orduan, predikatzen zuen orduan’.<sup>63</sup> *da*: ‘eta’.<sup>64</sup> *zarriz*: ‘jar zaitez(te)’.<sup>65</sup> *asientuan*: ‘egonaldian, egoeran’.<sup>66</sup> *Ernegaduko*: ‘arbuatuko’.



**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A26 – *Tratado de lo que berdaderamente acontecerá antes y el día del temeroso juicio* (Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago